



TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren akordioa, 2017ko azaroaren 7koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

AZTERTUTAKO TRAMITEA: 2018 UDAL AURREKONTUAREN onarpena

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1- ENTITATE ZERRENDA:

IKAZTEGIETA

2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

2018 udal aurrekontuaren onarpen espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek **44.000 euroko** superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2018rako ezarritako helburua defizita **zero** izatea da.

Hori dela eta, 2018 udal aurrekontuaren onarpen espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek **bete egiten du** aurrekontu egonkortasunaren 2018rako helburua.

Finantzen iraunkortasuna

2018ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2018an likidatutako sarrera arrunten **% 43,00** izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2018ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2018ko aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2018rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2018rako ezarritako helburua magnitude hori **% 75,00** baino handiagoa ez izatea da.



Udal Aurrekontua 2018

Hori dela eta, 2018 udal aurrekontuaren onarpen espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek **bete egiten du finantza iraunkortasunaren 2018rako helburua.**

Gastuaren araua

2017ko aurrekontuaren aurreikuspen likidazio eta 2018ko aurrekontuaren artean, gastu konputagarriaren bariazioa % **2,77** da.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA		
a1	2017ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	552.000,00
a2	SEC doiketak ¹	0,00
a3	2017ko interesak	0,00
a4	Finantzaketa lotua duen gastua 2017an	74.231,93
a=a1+a2-a3-a4	2017ko gastu konputagarria	477.768,07
b1	2018ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	523.659,65
b2	SEC doiketak ²	0,00
b3	2018ko interesak	2.100,00
b4	Finantzaketa lotua duen gastua 2018an	30.549,18
b5	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketan eragina	0,00
b=b1+b2-b3-b4-b5	2018ko gastu konputagarria	491.010,47
c=(b/a-1)*100	Gastu konputagarriaren bariazioa (%tan)	% 2,77

2018rako ezarritako helburua gastu konputagarriaren bariazioa % **2,4** baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, 2018 udal aurrekontuaren onarpen espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek **EZ** du betetzen 2018rako gastuaren araua.

3- ONDORIOAK

2018 udal aurrekontuaren onarpen espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek EZ du betetzen 2018rako gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta legoke, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, arauaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren orde, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiruugarren apartatua aurreikusitako komunikazio egin beharko zaio Udaltzari.

Ikaztegieta, 2017ko abenduaren 20an
Idazkari Kontu-hartzailea

¹ Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.

² Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.